

## MUSIKA GELA 2019-2020



2019-2020 Musika Gelako programazioaren aurrerapena  
*Avance Programación Musika Gela 2019-2020*  
*Euskadiko Orkestra*

**ESKOLA KONTZERTUAK**  
*CONCIERTOS PARA ESCOLARES*

## MUSIKA GELA 2019-2020

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 19/20 Denboraldiko *leitmotivaren* —Bidaia ezezagunean barrena— ildotik, kondairazko bidaia eta maitasunak proposatzen dizkizuegu musika epikoen bidez, besteak beste: Griegen *Peer Gynt* edo bidean galdu ziren beste musika batzuk, Maria Anna Mozart konpositorearen obrak, austriar egile ezagunaren ahaztutako arrebarenak, alegia.

Musikaren eta ekologiaren arteko harremanak begirada ezberdinen bidez arakatzearen aldeko apustua ere egingo dugu mundu garbiago baten aldarrikapenarekin bat egiteko asmotan. Ekomusik programaren bitartez egingo dugu, musika barrokoa oinarri izango duen kontzertu batean.

Zikloan protagonismo berezia hartzen duten Eskola Kontzertuez eta Musika Familiar kontzertuez gain, Musika Gelak Denboraldi honetan Entsegu Irekiekin jarraituko du, baita FEVAS-Plena inclusiónekin duen lankidetzarekin ere.

*En línea con el leitmotiv de la Temporada 19/20 de la Orquesta Sinfónica de Euskadi —Un viaje por lo desconocido—, os proponemos viajes y amores legendarios a través de músicas épicas como la suite Peer Gynt de Grieg o de otras que se perdieron en el camino, como las obras de la compositora Maria Anna Mozart, hermana olvidada del renombrado autor austríaco.*

*También apostamos por explorar las relaciones entre la música y la ecología desde diferentes miradas para sumarnos a la reivindicación de un mundo más limpio. Lo haremos mediante el programa Ekomusik, un concierto que se asentará sobre la música barroca.*

*Además de los Conciertos para Escolares y los Conciertos en Familia, que representan la pieza central del ciclo, el Aula de Música continúa esta Temporada con los Ensayos Abiertos y con la colaboración de FEVAS-Plena inclusión.*

**Eskola Kontzertuen programazioaren koadro laburtua**

## MUSIKA GELA 2019-2020

### Cuadro resumen programación Conciertos para Escolares

Izenburua <i>Título</i>	Hezkuntza-etapa <i>Etapa educativa</i>	Datak <i>Fechas</i>	Tokia <i>Lugar</i>	Formazio instrumentala <i>Formación instrumental</i>
<b>MOZART, NANNERL ETA LAGUNAK</b>	HH <i>E. INFANTIL</i>	2019ko urriaren <b>17, 18, 21, 22, 23, 24</b> <i>octubre 2019</i> 2 saio eguneko/2 sesiones diarias	MIRAMONEKO AUDITORIOA <i>AUDITORIO MIRAMON</i> Iraupena/Duración <b>40'</b>	Harizko laukotea, Klarinetea, Pianoa eta Perkusioa <i>Cuarteto de Cuerda, Clarinete, Piano y Percusión</i>
<b>URRUTIKO LURRALDEAK</b>	LH <i>E. PRIMARIA</i>	2019ko azaroaren <b>21, 22</b> <i>noviembre 2019</i> 2 saio eguneko/2 sesiones diarias	MIRAMONEKO AUDITORIOA <i>AUDITORIO MIRAMÓN</i> Iraupena/Duración <b>50'</b>	Orkestra Sinfonikoa + proiektzioa <i>Orquesta Sinfónica + proyección</i>
<b>EKO-MUSIK</b>	LH <i>E. PRIMARIA</i>	2020ko otsailaren <b>13, 14, 17, 18, 19</b> <i>febrero 2020</i> 2 saio eguneko/2 sesiones diarias	MIRAMONEKO AUDITORIOA <i>AUDITORIO MIRAMÓN</i> Iraupena/Duración <b>50'</b>	Harizko talde barrokoa + klabea <i>Grupo barroco de cuerda + clave</i>
<b>MAITASUN EPIKOAK</b>	LH eta DBH <i>PRIMARIA Y SECUNDARIA</i>	2020ko otsailaren <b>26, 27</b> <i>febrero 2020</i> 2 saio eguneko/2 sesiones diarias	KURSAAL AUDITORIOA <i>AUDITORIO KURSAAL</i> Iraupena/Duración <b>60'</b>	Orkestra sinfonikoa + dantza <i>Orquesta Sinfónica + danza</i>

## MUSIKA GELA 2019-2020

### 1. MOZART, NANNERL ETA LAGUNAK

- *Eskola Kontzertua: Haur Hezkuntza*
- *Concierto Escolar: Educación Infantil*

Bi protagonista nagusi izango ditu kontzertu honek: musika klasikoaren pertsonaia entzutetsuenetako bat, Wolfgang Amadeus Mozart, eta bere arreba Maria Anna Mozart, hura ere konpositorea, baina zeinaren obra gehienak galdu egin diren historian barrena. Nannerl —Maria Annaren goitizena— berpiztu egingo da gure aurrean ezagutzera emateko eta gu bere anaiaren musikara hurbiltzeko. *Martxa turkiarraren* eritmorra eta bere obrak musika-estilo ezberdinen bidez eraldatzeko jolasekin, haurrek deskubrituko dute Mozarten musika gaurkotasun osokoa dela.

Uno de los personajes más ilustres de la música clásica, Wolfgang Amadeus Mozart, y su hermana Maria Anna Mozart, una compositora cuya música apenas ha llegado a nuestros tiempos, serán los protagonistas de este concierto. Nannerl, que es como se apodaba Maria Anna, volverá a la vida para darse a conocer y acercarnos a la música de su hermano. Al ritmo de la *Marcha Turca* y mediante juegos de transformación de sus obras a diferentes estilos musicales, las y los niños descubrirán que la música de Mozart es de rabiosa actualidad.

PROIEKTUA PROYECTO	DATAK ETA ORDUAK FECHAS Y HORAS	IRKASLEENTZAKO TAILERRA TALLER PROFESORADO	KONTZERTUAREN TOKIA LUGAR CONCIERTOS	Eskola Kontzertuak Conciertos escolares	Aforoa saio bakoitzeko Aforo por sesión
<b>MOZART, NANNERL ETA LAGUNAK</b> <b>Haur Hezkuntza</b> Harizko laukotea, Klarineta, Pianoa eta Perkusioa Cuarteto de Cuerda, Clarinete, Piano y Percusión	2019ko <b>urriaren 17, 18, 21, 22, 23, 24</b> <b>octubre 2019</b> <b>9.45 -11:15</b> (2 saio eguneko)  <i>Iraupena/ Duración: 40 minutos</i>	Asteazkena <b>irailaren 25a</b> <b>12:00etan</b> Miramongo Egoitzan <b>Miércoles 25 de septiembre</b> <b>12:00h</b> Sede de Miramón Tailerra gidatzen du Ana Eguiazabal Conduce el taller	Miramongo Egoitzako Auditorioa Auditórium Sede Miramón	12 eskola kontzertu 12 escolares	160 ikasle eta irakasle artean 160 entre alumnado y profesorado  Guztira/total 1920
W. A. Mozarten obrak eta Nannerl Mozarten liburuko obrak. Mozarten 25.sinfonia, Nannerls notebook minueto edo allegroa, klarinete boskotetik minueto eta tema eta bariazioak, martxa turkoa, piano sonata, gaueko serenata txikia, Figaroren ezteietatik aria, klarinete kontzertu zatiak, obertura. Obras de W.A. Mozart y del libro de Nannerl Mozart: Sinfonía nº 25, Nannerls notebook minueto o allegro, Quinteto clarinete minueto y tema y variaciones Marcha turca, Sonata piano, Pequeña serenata nocturna, Aria bodas de figaro, Obertura, Concierto para clarinete (fragmentos)					

## MUSIKA GELA 2019-2020

### 2. URRUTIKO LURRALDEAK

- **Eskola Kontzertua: Lehen Hezkuntza**
- **Concierto Escolar: Educación Primaria**

Duela 500 urte Juan Sebastian Elkanok egin zuen bidaia epikoan ontziratu da Orkestra osoa. Abentura hori abiapuntu, ikasleek gozatu ahal izango dute Elkanoren jaioterriko folkloreaz eta bere bidaiaren soinu-banda osatu ahal izan zezaketen melodia ezberdinez (Beethoven, Strauss, Rossini, etab.). Kontzertuaren une gorena *Elcano eta Magallanes. Lehen mundu bira* animaziozko filmaren irudien proiektzioa izango da, Fernando Velázquezek film luzerako konposatutako musikaren suite batek lagunduta.

La Orquesta al completo se embarcará en el épico viaje que realizó hace 500 años Juan Sebastián Elcano. Partiendo de esa aventura, el alumnado podrá disfrutar del folklore de sus orígenes y de las diferentes melodías (Beethoven, Strauss, Rossini, etc.) que podrían haber conformado la banda sonora de su periplo. El plato fuerte del concierto será la proyección de imágenes de la película de animación *Elcano y Magallanes. La primera vuelta al mundo*, acompañada de una suite de la música compuesta por Fernando Velázquez para el largometraje.

PROIEKTUA PROYECTO	DATAK ETA ORDUAK FECHAS Y HORAS	IRKASLEENTZAKO TAILERRA TALLER PROFESORADO	KONTZERTUAREN TOKIA LUGAR CONCIERTOS	Eskola Kontzertuak Conciertos escolares	Aforoa saio bakoitzeko Aforo por sesión
<b>URRUTIKO LURRALDEAK</b> <b>Lehen Hezkuntza</b> Orkestra sinfonikoa eta proiektzioa Orquesta sinfónica y proyección	2019ko azaroaren <b>21, 22</b> Noviembre 2019 <b>9.45 -11:30</b> (2 saio eguneko)  Iraupena/Duración: 50-55 minutos	Asteazkena <b>urriaren 30a</b> <b>12:00etan</b> Miramongo Egoitzan <b>Miércoles 30 de octubre</b> <b>12:00h</b> Sede de Miramón Tailerra gidatzen du Ana Eguiazabal Conduce el taller	Miramongo Egoitzako Auditorioa Auditorium Sede Miramón	4 eskola kontzertu 4 escolares	350 ikasle eta irakasle artean 380 entre alumnado y profesorado  Guztira/total 1400
Fernando Velázquez-en musikarekin EOsek grabatutako "Elcano, lehen mundu bira" euskal animazio pelikularen proiektzioarekin kontzertu sinfonikoa (15'). Programa "Sevillako Bizargina" Rossiniaren oberturarekin, Ohne sorgen Straussen polkarekin, Guridiren 10 euskal melodien aukeraketarekin, Beethovenen kontradantzen selektzioarekin eta Velázquez-en Zipi Zape obrekin osatuko da. Concierto Sinfónico, con la proyección de la película vasca de animación "Elcano, la primera vuelta al mundo" con música original de Fernando Velázquez y grabado por la OSE. (15 minutos). El programa se completará con: Obertura "EL Barbero de Sevilla", Rossini, "Ohne sorgen", polca rápida en Do mayor op 271, Josef Strauss, 1,44, 10 Melodías Vascas de Guridi (selección), Ludwig van Beethoven, contradanzas, WoOp 14 (selección), Obras de Fernando Velázquez Zipi y Zape,					

## MUSIKA GELA 2019-2020

### 3. EKO-MUSIK

- **Eskola Kontzertua: Lehen Hezkuntza**
- **Concierto Escolar: Educación Primaria**

Musika-tresnak artisau eran eraikitzea ingurunea errespetatuz eta musikaren esentzia bilatzea, naturan, bere itxurazko sorlekuan. Horiek izango dira oinarri musika klasikoaren eta ekologiaren arteko harreman zuzena ezartzea helburu duen kontzertu honetan. Harizko hamar instrumentuk eta klabezinak osatuko duten talde batek errepertorio barrokoa jorratuko du, historiako garai hartan oso ohikoa baitzen musikagileek naturaren elementuetara jotzea euren konposizioetan.

Construir instrumentos musicales de manera artesanal respetando el medio ambiente y buscar la esencia de la música, que parece emerger de la propia naturaleza. Es lo que nos proponemos en este concierto que tiene como meta establecer una relación directa entre la música clásica y la ecología. Una formación de diez instrumentos de cuerda y clave abordará el repertorio barroco, momento histórico en el que los compositores recurrían con frecuencia a los elementos de la naturaleza.

PROIEKTUA PROYECTO	DATAK ETA ORDUAK FECHAS Y HORAS	IRKASLEENTZAKO TAILERRA TALLER PROFESORADO	KONTZERTUAREN TOKIA LUGAR CONCIERTOS	Eskola Kontzertuak Conciertos escolares	Aforoa saio bakoitzeko Aforo por sesión
<b>EKO-MUSIK</b> <b>Lehen Hezkuntza</b> Harizko talde barrokoa+klabea Grupo barroco de cuerda + clave	2020ko <b>otsailaren</b> <b>13, 14, 17, 18, 19</b> <b>febrero</b> 2020 <b>9.45 -11:30</b> (2 saio eguneko)  Iraupena/ Duración: 50 minutos	Asteazkena <b>azaroaren 13a</b> <b>12:00etan</b> Miramongo Egoitzan Miércoles <b>13 de noviembre</b> <b>12:00h</b> Sede de Miramón Tailerra gidatzen du Ana Eguiazabal Conduce el taller	Miramongo Egoitzako Auditorioa Auditórium Sede Miramón	10 eskola kontzertu 10 escolares	350 ikasle eta irakasle artean 350 entre alumnado y profesorado  Guztira/total 3500
Bach, suite edo 3. Obertura Re maiorrean, Vivaldiren Negua, Vivaldi "La tempesta di mare", Rameau Tonnerre (aukeraketa) Boccherini op. 30 Bach, Suite o Ouverture nº 3 in D major, Vivaldi: el invierno, Vivaldi "La tempesta di mare" concerto per violino e archi. Boccherini op.30 Rameau, Tonnerre (Selección)					

## MUSIKA GELA 2019-2020

### 4. MAITASUN EPIKOAK

- **Eskola Kontzertua: Lehen Hezkuntza (hirugarren zikloa) eta Bigarren Hezkuntza (lehen zikloa)**
- **Concierto Escolar: Educación Primaria (tercer ciclo) y Educación Secundaria (primer ciclo)**

Lucía Marín orkestra-zuzendariaren, Euskadiko Orkestra Sinfoniko osoaren, dantzaren eta narratzaile baten eskutik Europako iparraldera bidaiatuko dugu bertako konpositore garrantzitsuenetako biren —Grieg eta Sibeliusen— musikaren bidez penintsula eskandinaviarraren paisaia naturalak eta kultura deskubritzeko. Kolore ezberdinez betetako kontzertua izango da, baita mota guztietako paisaiak eta sentipen biziak ezin hobeki irudikatuko dituzten musika handiez betetakoa ere.

De la mano de la directora de orquesta Lucía Marín, la Orquesta Sinfónica de Euskadi al completo, la danza y un narrador, viajaremos al norte de Europa para descubrir mediante la música de dos de sus compositores más relevantes —Grieg y Sibelius— los paisajes naturales y la cultura de la península escandinava. Un concierto lleno de colores diferentes,

PROIEKTUA PROYECTO	DATAK ETA ORDUAK FECHAS Y HORAS	IRKASLEENTZAKO TAILERRA TALLER PROFESORADO	KONTZERTUAREN TOKIA LUGAR CONCIERTOS	Eskola Kontzertuak Conciertos escolares	Afooa saio bakoitzeko Aforo por sesión
<b>MAITASUN EPIKOAK</b> <b>Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza</b> Orkestra + Lucía Marín+ narrazioa + dantzariak Orkestra+ Lucía Marín+narración+bailarines	2020ko <b>otsailaren 26,27</b> <b>febrero 2020</b> <b>9.45 -11:30</b> (2 saio eguneko)  Iraupena/ Duración: 60 minutos	Asteazkena <b>azaroaren 27a</b> <b>12:00etan</b> Miramongo Egoitzan Miércoles <b>27 de noviembre</b> <b>12:00h</b> Sede de Miramón Tailerra gidatzen du Ana Eguiazabal Conduce el taller	Kursaal Auditorioa Auditorio Kursaal	4 eskola kontzertu 4 escolares	1000 ikasle eta irakasle artean 1000 entre alumnado y profesorado  Guztira/total 4000
Suite 1 y 2 Peer Gynt E. Grieg (aukeraketa/selección), “Melodías Elegiacas” E. Grieg, “Finlandia” J. Sibelius					

## MUSIKA GELA 2019-2020

**ENTSEGU IREKIAK 2019ko urrian abian jarriko ditugu**

*ENSAYOS ABIERTOS lanzamos en Octubre 2019*

Musika Ikaslegoa / Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikaslegoa, beste kolektiboak eta HHE

*Alumnado de Música / Alumnado de Primaria - Secundaria y Bachiller y otros colectivos, EPAS*

<b>DATA FECHA</b>	<b>ORDUA HORA</b>	<b>TOKIA LUGAR</b>	<b>PROGRAMA</b>	<b>ZUZENDARIA DIRECTOR</b>
2019KO ABENDUA 2019/12/4 ASTEAZKENA <i>DICIEMBRE 2019</i> 04/12/2019MIERCOLES	11:00 – 12:00 (luzatzeko aukera dago/ <i>hay opción</i> <i>de alargar</i> )	KURSAAL	M.RAVEL: Alborada+Rapsodia+Pavana+Bolero	ROBERT TREVIÑO
2020KO MAIATZA 2020/05/7 OSTEGUNA <i>MAYO 2020</i> 7/05/2020 JUEVES	11:00 – 12:00 (luzatzeko aukera dago/ <i>hay opción</i> <i>de alargar</i> )	KURSAAL	M. URQUIZA Elkano proiektua 2 A. DVORAK Sinfonía nº 9 "del nuevo mundo"	GEORG MARK